## egitarau ofiziala

### EKAINAK 24 • igandea

**12:00** San Pelaio ermitan meza. Ondoren, Easo Gregorianista Kaperaren kontzertua, ermitaren 150. urteurrena ospatzeko.

**19:00** De Traka taldearen saioa haurrentzat, Musika Plazan.

Egun osoan, kometa jaialdia izango da, hondartzan.

### EKAINAK 25 • astelehena

**12:00** Suziriak, Udaletxeko balkoian. Alkate andreak Haurren Agertaldiko Danbor Nagusiari makila emango dio. Ondoren, kalejira abiatuko da, trikitilari, txistulari, buruhandi eta erraldoiekin.

**18:30** Haurren 23. Agertaldia. Azken Portu, Iñurritza, Vista Alegre eta Itsasmendi auzuneetatik irten eta herriko kaleetan zehar ibili ondoren, 20:00etan Lege Zaharren enparantzan taldeak bilduko dira, Zarauzko Musika Banda, Gauerdi, Pasai eta Txalaparta txarangarekin.

**23:30** Helduen Danborrada. Arralde Txiki, Francisco Zurbaran, Urpekoak eta Carballeira Elkartetxeak antolatua. Gaztelekutik irtengo da, Geltoki parkera abiatu, eta ondoren, Herrikobarra kaletik Lege Zaharren enparantzaraino joango da.

**23:45** Lege Zaharren enparantzan herritarrak bilduko dira, txarangekin batera.

**00:00** Lege Zaharren enparantzan herriko ikurrina altxatuko da, eta Pelaio Deunaren ereserkia abestuko da, Udal Banda eta Helduen danborradarekin. Ondoren, Musika plazan, dantzaldia Gauerdi, Pasai eta Txalaparta txarangekin.

Aldi berean, danborrada honako kaletan ibiliko da: Zigordia, San Frantzisko, Nafarroa, Azpeiti bidea, Musika Plaza, Kale Nagusia, San Frantzisko kalea, Zigordia kalea. Gaztelekuan amaituko da.

**00:30** Munoan, txosnen gunean, kontzertua, Skalariak eta Eraso taldeekin.

### EKAINAK 26 • asteartea
**Pelaio Deunaren Eguna**

**7:00** Iñurritzan, arratsaldean jango den txahal handia erretzen hasiko dira.

**9:00** Goiz eresia, txistulari, dultzainero eta trikitilariekin.

**10:45** Iñurritzako zelaitik, zaharberritutako San Pelaio imajinarekin prozesioa izango da ermitaraino, Udalbatzarekin. Ondoren, ermitan sarrera egingo du Juan Maria Uriarte gotzainak bedeinkatzeko.

**11:00** San Pelaio ermitan, Juan Maria Uriarte gotzainak meza nagusia emango du, ermitaren 150. urteurrena ospatzeko.

**11:30** Buruhandiak eta erraldoiak.

**13:00** Zarauzko Udal Bandaren kontzertua, Musika Plazan, Lizarrako Gaiteroekin eta Musika Bandarekin. Zuzendaria: Iosu Isasti Agoues. Egitaraua: *La Cautiva* (J. Guridi), *Kalejira* (A.M. Uriz Bea), *Jota* (C. Beristain), *Vals con variaciones* (J. Romano), *The cream of Clapton* (Ron Sebregts).

**17:00** Musika plazan, koadrilak bilduko dira beren brusak jantzita.

**17:30** Musika plazatik Iñurritzara kalejira, Txalaparta txarangarekin.

**18:00** Iñurritzan, erromeria. Txalaparta txaranga, trikitilari eta dultzaineroekin.

**18:00** Sokamuturra Iñurritzan.

**18:30** Triala, ikastolako kirol zelaian.

**19:00** Txahal handia erreko da burruntzian. Txosnak irekiko dira Munoan, eta Patata Tortilla Lehiaketa izango da.

**21:00** Erromesen itzulera kalejiran, Musika plazara.

**23:00** Su artifizialak, hondartzan.

**23:00** Musika Plazan, dantzaldia, Txalaparta txarangarekin eta Iruña Band orkestrarekin.

**23:30** Eztanda taldea, txosnetan.

### EKAINAK 27 • asteazkena
**Haurren Eguna**

**9:00** Goiz eresia, trikitilariekin.

**9:30** 59. Lehendakari Txapelketa. Txirrindulariak. Iñurritzatik hasita, eskualdeko herrietatik pasatuko da lasterketa. Helmuga Iñurritzan bertan izango da.

**11:00** Buruhandiak eta erraldoiak.

**12:00** Puzgarriak, Musika Plazan.

**17:30** Kalejira, Musika Plazatik Iñurritzara. Ardatz Gora fanfarrearekin, trikitilariekin, buruhandiekin eta erraldoiekin.

**18:00** Erromeria, Iñurritza zelaian, Ardatz Gora fanfarrearekin eta trikitilariekin

**18:30** Azkona taldearen saioa.

**18:30** Puzgarriak, motorren pista, trena eta abar, Ikastolako kirol zelaian.

**20:30** Erromesen itzulera, kalejiran.

**22:30** Etzakit taldea, Musika Plazan.



## Triki Ta Ke taldearekin dantzan

Musika entzun, eta musika doinuekin gozatu eta dantza egiteko aitzakiarik ez da faltako sanpelaioetan. Kalejirak, dantzaldiak, erromeriak eta beste hainbat musika saio izango dira egun hauetan festetan. Besteak beste, Triki Ta Ke taldeak heldu den ostegunean joko du, Iñurritza auzunean, gaueko 22:30etik goizalde arte.

## Iñurritzako egitaraua

### EKAINAK 26 • asteartea

**9:00** Goiz eresia, txistulariekin.

**11:00** Meza nagusia.

**12:30** Aurreskua, Iñurritzako zelaian, Iñurritzako gazteek eskainia.

Arratsaldean, erromeria, Iñurritzako zelaian.

**22:30** Erromeria, Etxabe Anaiak taldearekin.

### EKAINAK 27 • asteazkena

**5:00** Baratxuri zopa, Mutil-Ardo elkarteak eskainia.

**6:00** Ezkongabeen oilasko biltzeeren hasiera.

**13:30** Oilasko biltzeeren amaiera, Iñurritzako zelaian.

Arratsaldean, erromeria Iñurritzako zelaian.

**22:30** Bertso jaialdia. Bertsolariak: Sebastian Lizaso, Anjel Mari Peñagarikano, Loidisaletxe II.a, Joxe Agirre, Mantxi, Nahikari Gabilondo. Gai jartzailea: Imanol Epelde.

Ondoren, erromeria, Ezkerra anaiarrebekin.

### EKAINAK 28 • osteguna

**9:00** Goiz eresia, txistulariekin.

**11:00** Meza, eta ondoren hamaiketakoa auzuneko zaharrentzat, Mutil-Ardo elkarteak eskainia, Iñurritzako Elkartean.

**12:00** Haur jolasak.

**14:00** Mutil-Ardo elkartekoentzat gibeljana.

**18:30** Herri kirol jaialdia. Izeta II.a, Landarbide, Peñagarikano, Olasagasti eta Hodei Izeta ariko dira.

**22:30** Triki Ta Ke taldearekin jaialdia goizalde arte.







